




Bilbao Orkestra  
Sinfonikoa

DENBORALDIA ————— 24 ————— TEMPORADA  
25

martxoak 27-28 marzo

Hastapeneko abonua  
Abono de Iniciación

© Oier Rey Delika



# Mozart, Mendelssohn y Suzuki

**W.A. Mozart:** Sinfonía nº 25 en sol menor K. 183  
*Vorrei spiegarvi, oh Dio, para soprano y orquesta K. 418*  
*Fra cento affanni e cento, para soprano y orquesta K. 88*

**F. Mendelssohn:** *Sinfonía nº 5 en Re Mayor Op. 107 "de la Reforma"*

**Jone Martínez**, sopranoa/soprano  
**Masaaki Suzuki**, zuzendaria/director



Palacio Euskalduna jauregia



osteguna | jueves 19:30 h  
ostirala | viernes 19:30 h



Desde 14,42 €-tik aurrera  
Gaztea (<30):  
desde 5,41 €-tik aurrera

Taquilla Euskaldunako leihatila  
[www.bilbaorquestra.eus](http://www.bilbaorquestra.eus)





**Jone Martínez, sopranoa/soprano**  
**Masaaki Suzuki, zuzendaria/director**

I

W. A. MOZART  
(1756 - 1791)

25. sinfonia sol minorrean K. 183\*  
Sinfonía nº 25 en sol menor K. 183\*

- I. Allegro con brio
- II. Andante
- III. Menuetto-Trio
- IV. Allegro

Fra cento affanni e cento, soprano eta orkestrarako K. 88\*  
Fra cento affanni e cento, para soprano y orquesta K. 88\*

Vorrei Spiegarvi, oh Dio, soprano eta orkestrarako K. 418  
Vorrei Spiegarvi, oh Dio, para soprano y orquesta K. 418

**Jone Martínez, sopranoa / soprano**

II

F. MENDELSSOHN  
(1809 - 1847)

5. sinfonia Re Maiorrean Op. 107 "Erreformarena"  
Sinfonía nº 5 en Re Mayor Op. 107 "de la Reforma"

- I. Andante - Allegro con fuoco
- II. Allegro vivace
- III. Andante
- IV. Chorale: Andante con moto - Allegro vivace

\*Lehen aldiz BOSEN eskutik - Primera vez por la BOS  
Iraup. / Dur: 100' (g.g.b./aprox.)



## Egitarauaren oharrak

### MUGAKO MUSIKA

Gaur arratsaldean zenbait konpositoreren musikaz gozatuko dugu; bada, konpositore horiek hainbat ezaugarri komun dituzte. Batzuk ospatzeko modukoak dira, hala nola beren talentu ukaezina eta kalitate handiko musika idatzi izana —kalitatea homogeneoagoa da Mozarten katalogoa Mendelssohnenean baino— eta hainbat generotan. Tamalgarria da honako kointzidentzia hau: bizitza oso laburra izan zuten. Mozart hogeita hamasei urte betetzeko aste gutxi geratzen zitzakionean hil zen, eta Mendelssohn ez zen hogeita hemezortzira iritsi. Bitxia da Mozartek Mendelssohnern aitonaren, filosofoaren, esaldi bat sartu izana aitari idatzi zion azken gutunean (heriotzari buruz hausnartzen zuen bertan). Ia hitzez hitz, aipaturiko Moses Mendelssohnen “Fedón, o sobre la inmortalidad del alma” liburutik hartu zuen. Mozartek bere gutunean hau dio: “Heriotza gure bizitzaren benetako helburua denez, badira urte batzuk adiskide horrekin harreman estua dudala”.

Bi konpositore horien arteko beste lotura bat ere aurkituko dugu: hizkera klasikoa eta erromantikoa ez dira bietako inoren partituretak kanpo geratzen. Mozartek klasizismoaren gailurra irudikatzen badu ere, kontuan izan behar da bere obra batzuk miretsi eta mirespenez aztertu zitzutela konpositorre erromantikoek (horiek bere baliabide expresibo batzuk berenganatu zitzuten, beren emozio-kargak ilurauta). Mendelssohn, berriz, klasizismoari lotutako erromantikoa izan zen. Bi autoreengan, melodía oso inspiratuen lirismo argia eta grina espresionistaren berezko dramatismoa gurutzatzen dira.

Gaurko egitaraua mugako musika horren adibide ona da. Izen ere, Wolfgang Amadeus Mozart (Salzburgo, 1756 - Viena, 1791) 25. sinfonía (K.183) sol minorrean idatzita dago (bere 40. sinfonía, mende erromantikoko konpositoreek asko miresten zuten hori, gainezkatzen duen tonalitate gorabeheratsu eta aztorataile berberean). Gaur arratsaldean entzungo duguna hainbat analistik “meteorito sutsu” edo “mirariztat” jo duten obra da. Agian hamazazpi urte baino ez zituen nerabe bat partitura bi egunetan baino ez sortzera eraman zuen beroaldiagatik. Mozart Vienara egindako bidaia batetik itzuli zen; bertara joan zen familiarekin María Teresaren gortearen lanpostu baten bila. Oraingoan, beste askotan bezala, musika-panoramaren oinarri zirenak ez zuten fenomeno errepiñaezin baten aurrean zeudela egiazatzeko adinako argitasunik izan. Bere biografoek diotenez, orrialde sinfoniko hau itxaropenak zapuztuta dituen jenio baten frustrazioaren eta atsekabearen emaitza da. Gainera, bere pentagrammei musika korronte berri bat josita dago, zeinarekin Mozartek harremana izan zuen Austriako hiriburuan igarotako hiru hilabeteetan. Han, Haydn eta beste konpositorre batzuen (gaur egun egitarauetatik kanpo daudenak) sinfonía batzuk entzun zituen, Sturm und Drang delakoari lotutako proto-erromantizismoaren eragina zutenak. Korronte literario hori “ekaitza eta bultzada” itzul daiteke, eta musikan ere izan zuen eragina (intentsitate emocional areagotua eta abiatze grinatsu eta bortitzak eragiten dizkio).

Hori da Allegro con brioreni giro suhar eta ezkorrean aurkitzen duguna, zeinaren gai nagusia motibo erritmiko iraunkor eta basati batek sostengatzen baitu, non bere burua berezitzat zeukanaren harrotasun mindua islatzen dela baitirudi. Eszena bizia oboearren kantuarekin arintzen da neurri batean; baina baretasunak gutxi irauten du eta tentsioak, gupidagabe, mugimendua ixten du.

Andanteri hasiera emateko baliatzen dituen motibo labur eta beheranzkoetik datorren sentiberatasunak, baita oihartzunetan eta erreplika txikietan oinarritutako instrumentuen arteko elkarritzak ere, gogorazten digu Mozarti bere garaiko musikaren berezko hunkiberatasuna dariola beti. Edonola ere, fraseatzeko labur horiek, bata

## Notas al programa

### MÚSICA DE FRONTERA

Los compositores cuya música disfrutamos esta tarde tienen en común varias características. Algunas son dignas de celebración, como su incontestable talento y el hecho de que escribieran música de alta calidad —más homogénea la calidad en el catálogo de Mozart que en el de Mendelssohn— y en diversos géneros. De signo lamentable es la coincidencia en su brevísimas vidas. Mozart murió cuando le quedaban pocas semanas para cumplir treinta y seis años y Mendelssohn no llegó a los treinta y ocho. No deja de ser curioso que Mozart incluyera una frase del abuelo de Mendelssohn, el filósofo, en la última carta que escribió a su padre y en la que reflexionaba acerca de la muerte. La tomó, casi textualmente, del libro “Fedón, o sobre la inmortalidad del alma” del citado Moses Mendelssohn. En su carta, Mozart dice esto: “Como la muerte es la verdadera finalidad de nuestras vidas, hace ya varios años que mantengo una relación estrecha con esta amiga.”

También encontramos otro enlace entre estos dos compositores y es que el lenguaje clásico y el romántico no son ajenos a las partituras de ninguno. Si bien Mozart representa la cumbre del Clasicismo, hay que tener en cuenta que algunas de sus obras fueron admiradas y analizadas con veneración por los compositores románticos, que asimilaron algunos de sus recursos expresivos fascinados por su carga emotiva. Por su parte, Mendelssohn fue un romántico atado al Clasicismo. En ambos autores se entreteje el lirismo claro de unas melodías inspiradísimas con un dramatismo propio del afán expresionista.

El programa de hoy es buen ejemplo de esta música de frontera. De hecho, la Sinfonía nº 25 K 183 de Wolfgang Amadeus Mozart (Salzburgo, 1756 - Viena, 1791) está escrita en sol menor, la misma tonalidad agitada y perturbadora que inunda su Sinfonía 40, esa que fue colocada en un altar por los compositores del siglo romántico. La que escuchamos esta tarde es una obra que varios analistas han calificado como “meteorito ardiente” o “milagro”. Tal vez por el arrebato que llevó a un adolescente de apenas diecisiete años a alumbrar la partitura en tan solo dos días. Mozart había regresado de un viaje a Viena, donde había ido con su familia en busca de un puesto de trabajo en la corte de María Teresa. En esta ocasión —como tantas otras veces— quienes sostienen el panorama musical no tuvieron la clarividencia necesaria para constatar que estaban ante un fenómeno irrepetible. Dicen sus biógrafos que esta página sinfónica es el resultado de la frustración y el desconsuelo de un genio con las expectativas truncadas. Además, está cosida a sus pentagramas una nueva corriente musical con la que Mozart tomó contacto en los tres meses pasados en la capital austriaca. Allí escuchó algunas sinfonías de Haydn y de otros compositores —hoy fuera de los programas—, impregnadas del proto-romanticismo asociado al Sturm und Drang, corriente literaria que puede traducirse como ‘tempestad y empuje’ y que afectó también a la música, infundiéndole una intensidad emocional exacerbada y unos arranques apasionados y violentos.

Es lo que nos sale al encuentro en la atmósfera vehemente y pesimista del Allegro con brio, cuyo tema principal está sustentado por un motivo rítmico insistente y salvaje en el que parece reflejarse el orgullo ofendido de quien se sabía singular. La febril escena se alivia en parte con el canto del oboe, pero la calma dura poco y la tensión, implacable, cierra el movimiento.

La sensibilidad que emana de los motivos breves y descendentes con que da comienzo el Andante, así como el diálogo entre instrumentos basado en ecos y pequeñas réplicas, nos recuerda que Mozart desborda siempre la emotividad propia de la música de su tiempo. En todo caso, esos fraseos cortos, apoyados unos en otros y



bestearen gainean bermaturik eta halako xalotasun batez, sosegu pixka bat itzultzen digute mugimenduaren amaierak malenkoniaz tindaturiko sinfonia baten aurrean gaudela adierazi aurretik.

Izan ere, Menueta oso urrun dago garai klasikoak hain dotore landu zuen dantza adeitsuaren ideiatik (ideia horrekin sortu zen Luis XIV.aren gortean). Mugimendua irekitzean hiruko konpasa markatzeko irmotasuna zertxobait zapaltailea da; baina grinak berriro amore ematen du Trion, zurezko haizezko instrumentuen kantuaren argitasunarekin, eta horrek baretasun une bat ematen digu da capoaren aurretik.

Bi mugimendu zentral horiek naturaltasunaren erakusgarri zoragarria dira (Mozarten musikak naturaltasun horrekin arnasten du), tentsioaren eta atsedenaren arteko alternantzia ezin hobean.

Basatasuna Allegro finalean itzultzen da, ideia obsesivo eta erabateko batekin, zeinak, bere grina eta adierazpen sutsuan, leku gutxi uzten baitio haren txandaka erabiltzen den eta arinxeara den beste bat.

Klasizismoaren hastapenetan egonik ere, Mozartek aitorpen pertsonal tragicó bat oparitzen digu hemen, hain hunkigarria non erabat originala eta aitzindaria dela esan baitaiteke. Iristear zegoenaren erabateko aurrerapena.

Eta haur prodijoa izanik, are gazteagoa zen "Fra cento affanni e cento" kontzertu aria (Metastasioren testu bati buruzkoa) idatzi zuenean. Hamalau urte zituen; eta Milanen izan zen, aitarekin batera Italiako opera-mundu zoragarria bertatik bertara ezagutzeko eta, jakina, bere burua ezagutzen emateko elkarrekin egin zituzten bidaia ugarietako batean. Hain zuzen ere, Milanen eskuzabaltasunez tratatu zuten, bai arlo ekonomikoan, bai arlo profesionallean; izan ere, musika-zentro garrantzitsu hartako musikari garrantzitsu batzuek Mitridates operaren konposizioaren ardura eman ziezaioten bermatu zioten nerabeari. Gaur entzungo dugun ariara itzuliz, esan beharra dago ez zuela huts egin, heldutasun, izaera heroiko eta birtuosismo dosi handiko obratzat har daitekeena idatzi baitzuen. Estilo bokala deklamatu sendo baten (jauzi melodiko zabaletan aberatsa) eta koloratura orokortuaren artean banatzen da. Sopranoa inbaditzen duten ziztada, bihozkada eta dardarizoen adierazpenaren zerbitzura jartzen dira biak.

Mozartek berrogeita hamar kontzertu aria baino gehiago idatzi zituen. Horietako batzuk —horien artean dago "Fra cento affanni e cento"— solistentzako kantatzen adarkadura moduko bat izan ziren (era berean irudizko eszena batek inspiratua). Baino badira batzuk beste kompositore batzuen operetarako ekarpen gisa sortu zirenak. Adibidez, "Vorrei spiegarvi, oh Dio", 1783an Vienan Pasquale Anfossiren El curioso indiscreto opera bufoan ordezko orrialde gisa argitaratu zena. Bere koinatak, Aloysia Weberrek, Constanzeren ahizpak, kantatu zuen orduko harten. Mozartek interpreteak kontuan hartuta idazten zuen beti. Eta, Aloysiaren ahotsa gogoan, pieza bat diseinatu zuen, non lehen zatia melodia bikain batek biribiltzen duen, haize-instrumentuek —oboeak egiteko nabarmena duela— hariaren pizzicatoaren gainean aurreratzen dutena. Bertan, sopranoak bere pena eta bere patu zitala azaltzea amesten du, negar zotinka eta isilik egotera kondenatzten baitu; eta, horretarako, fiato zehatzka eskatzen duten ahots baliabideak erabili behar ditu. Adagioak Allegro bat bide ematen dio, non fraseatzeko luzea kantu oldakor eta akrobatikoagoa bihurtzen den, maitasun triangeluaren eragozpenen aurrean sopranoak duen ezinezgora adierazten duena. Kompositore klasikoa berriz ere emozio errromantikotik hain hurbil.

de cierta ingenuidad, nos devuelven un poco de sosiego antes de que el final del movimiento nos señale que estamos ante una sinfonía teñida de melancolía.

De hecho, el Menuet está muy alejado de la idea de danza galante con que nació en la corte de Luis XIV y que con tanta elegancia cultivó el periodo clásico. La contundencia con que está marcado el compás ternario en la apertura del movimiento resulta algo opresiva, pero el furor cede de nuevo en el Trío, con la claridad del canto en los instrumentos de viento madera, que nos aporta un momento de serenidad antes del da capo.

Estos dos movimientos centrales son una deliciosa muestra de la naturalidad con que respira la música de Mozart, en una alternancia perfecta entre tensión y reposo.

La ferocidad retorna en el Allegro final, con una idea obsesiva y rotunda que, en su furia y su expresión ferviente, deja poco espacio a otra algo más ligera con la que se va turnando.

Estando aún en los albores del Clasicismo, Mozart nos regala aquí una trágica confesión personal, tan conmovedora que puede considerarse absolutamente original y pionera. Todo un anticipo de lo que estaba por llegar.

Y tratándose de un niño prodigo, todavía era más joven cuando escribió su aria de concierto "Fra cento affanni e cento", sobre un texto de Metastasio. Tenía catorce años y fue en Milán, adonde había ido con su padre en uno de los numerosos viajes que hicieron juntos con el fin de conocer de primera mano el fabuloso mundo operístico italiano y, desde luego, con el propósito de darse a conocer. De hecho, en Milán fue generosamente tratado, tanto en lo económico como en lo profesional, ya que algunos de los músicos importantes de aquel destacado centro musical avalaron al adolescente para que le fuera encargada la composición de la ópera Nitridates. Volviendo al aria que escuchamos hoy, hay que decir que no defraudó, escribiendo lo que puede considerarse una obra de madurez, de carácter heroico y grandes dosis de virtuosismo. El estilo vocal se divide entre un robusto deklamado, rico en amplios saltos melódicos, y la coloratura generalizada. Ambas se ponen al servicio de la expresión de las punzadas, pálpitos y temblores que invaden a la soprano.

Mozart escribió más de cincuenta arias de concierto. Algunas de ellas —entre las que se encuentra "Fra cento affanni e cento"— fueron una especie de ramificación de la cantata para solista, inspirada igualmente por una escena imaginaria. Pero hay varias que nacieron como aportaciones a óperas de otros compositores. Es el caso de "Vorrei spiegarvi, oh Dio", que vio la luz en Viena en 1783 como página sustitutiva en la ópera bufa El curioso indiscreto de Pasquale Anfossi. En aquella ocasión la cantó su cuñada Aloysia Weber, hermana de Constanze. Mozart escribía siempre teniendo en cuenta a los intérpretes y, pensando en la voz de Aloysia, diseñó una pieza donde la primera parte está perfilada por una melodía sublime que anticipa los instrumentos de viento —con papel destacado para el oboe— sobre el pizzicato de la cuerda. En ella la soprano suspira por explicar su pena y su pérfido destino, que le condena a sollozar y guardar silencio, y para ello ha de usar unos recursos vocales que requieren de un filato preciso. El Adagio da paso a un Allegro donde el fraseo largo se convierte en un canto más impulsivo y acrobático, que expresa la desazón de la soprano ante los inconvenientes del triángulo amoroso. De nuevo el compositor clásico tan cerca de la emoción romántica.



Eta klasizismoaren eta erromantismoaren arteko mugaren beste aldean Felix Mendelssohn (Hamburgo, 1809 - Leipzig, 1847) dugu zain. Erromantiko klasizista hori konposizioaren argitasunaren eta simetria formalaren maisua izan zen, distorsio harmonikoetatik eta arauen urraketatik ihes egiten zuena. Uste zuen ordena klasizistak espiritu erromantikoa onartzen zuela eta horrek ez zuela hartan eraginik. Familia aberats eta ilustratu batean jaioa, Mendelssohnek zibilizazioaren ikuspegi jasoa zuen. Eta, bere partiturez gain, Europako kultur panoramari egindako ekarpenak oso baliotsuak dira (esaterako, Juan Sebastian Bachen izena berreskutzeara; edo Leipzigeko Gewandhausen —Alemaniako Zortziehun musicalaren loria eta gaur egun oraindik ere ospetsua den erakundea— zuzendaritzaz bikaina). Bere familia-inguruneak irakatsi zion aberastasuna bera itzuli egin behar zaiola komunitateari kulturaren bidez; eta hortik sortzen da bere kontzientzia klasikoa (eta hortik sortzen da ezagutzak emandako oreka- eta neurritasun-ikasbide bat).

Mendelssohnek hari-instrumentuetarako hainbat sinfonia konposatu zituen haurtzaroan, eta, beraz, berezko talentuari ofizio bikaina gehitu zion generoari orkestra osoarekin ekin aurretik. Bere re maiorreko 5. sinfonia idatzi zuen 1830ean, Augsburgeko Aitormenaren hirugarren mendeurrena ospatzeko; eta hortik datorki ezizena eta asmo zeremoniatsu. Hala ere, behin musika itzalita, gure oriomenean geratzen dena gaztetasunaren bultzada axolagabea eta mugimendu zentralen samurtasun lirikoa da.

Mugimenduen arteko nolabaiteko desoreka duen obra da hau. Lehenengoa sinfonia inspiratu zuen gertaerak eskatzen zuen solemnitateak barneratutako Andante batekin irekitzen da. Sarrera hori amaitu baino lehen, bi aldiz entzungo dugu 'Amén de Dresde' goi-erregistroan eta lerro tartekatuz marraztuta, jainkotasunaren baitan, protestanteen eta katolikoen arteko adiskidetasuna oroitazaten dutenak. Hain zuzen ere, hainbat sinesmen erlijiosotako konpositoreek (esaterako, Wagner, Bruckner edo Mahlerrek) erabili zuten musika-patrio hori beren lanetan. Allegroaren "con fuoco" izendapenak Mendelssohn grinatsua erakusten digu, modu minorrean eta basakeriaz bakearen eta gatazkaren arteko borroka planteatzen duena. Hemen haserre-pasarteak oreka-une batzuek leuntzen dituzte; harik eta 'Amén de Dresde' delakoa agertzen den arte, giroa baretzeko amaiera borobila baino lehen. Allegro vivace delakoak Mendelssohn egiazkora garamatza, zeinetik dantzaren eta cantabilearen erdibidean dauden ideiak erraz sortzen baitira, orkestra-tinbreek zipriztindutako motibo labur eta arinetan oinarrituriko jai-giroarekin. Scherzo zoriontsua da, zenbait partitura (hala nola Italiarra edo Udako gau bateko ametsa) freskotasuna duena. Andante labur-laburrak, ondoren, arnasa luzeko melodia hunkigarri bat oparitzen digu, bere Hitzik gabeko erromantzak delakoaren estilokoa, amaierako korala, "Ein feste Burg ist unser Gott" ("Gotorleku indartsua da gure Jaikoa") (Martin Luteroren ereserkia da hori, Bachek dagoeneko bere Cantata BWV 80n erabilia), prestatzeko balio duena. Zuren ahotsean aurkeztua, koraletik abiatuta garatutako kontrapuntuak agerian uzten du Mendelssohnek iraganeko konposizio-tekniken maneiuzin hobea eta haiekiko zuen debozioa. Bukaera arranditsu batek zeremoniatsu errematatzen du erlilio-erreforma baten loria handiagorako sortutako obra profano hau.

Egitarau honetan musika mugakoa ere izan daitekeela egiaztatuko dugu. Lirikoaren eta suharraren artekoa, ordenatuaren eta sutsuaren artekoa, klasikoaren eta erromantikoaren artekoa. Gozatu mestizajeaz.

Mercedes Albaina

Y al otro lado de la frontera entre Clasicismo y Romanticismo nos espera Felix Mendelssohn (Hamburgo, 1809 - Leipzig, 1847). Este romántico clasicista fue un maestro de la claridad compositiva y de la simetría formal, que huía de las distorsiones armónicas y de la transgresión de las normas. Creía que el orden clasicista aceptaba el espíritu romántico y que éste no interfería en aquél. Nacido en una familia rica e ilustrada, Mendelssohn tenía un elevado concepto de la civilización y, además de sus partituras, sus contribuciones al panorama cultural europeo son tan valiosas como la recuperación del nombre de Juan Sebastian Bach o la magnífica dirección de la Gewandhaus de Leipzig, gloria del Ochocientos musical alemán y aún hoy prestigiosa institución. Su entorno familiar le había inculcado que la propia riqueza debe devolverse a la comunidad a través de la cultura y de ahí nace su conciencia clásica, de la que brota una lección de equilibrio y templanza dictada por el conocimiento.

Mendelssohn había compuesto en su niñez varias sinfonías para cuerdas por lo que, a su talento innato, sumó un notable oficio antes de abordar el género con orquesta completa. Escribió su Sinfonía nº 5 en Re Mayor en 1830 para conmemorar el tercer centenario de la Confesión de Fe de Augsburgo, de ahí su sobrenombramiento y su pretensión ceremoniosa. Sin embargo, una vez se apaga la música, lo que queda en nuestra memoria es el despreocupado empuje juvenil y la ternura lírica de sus movimientos centrales.

Es esta una obra con cierta descompensación entre movimientos. El primero se abre con un Andante penetrado por la solemnidad que requería el acontecimiento que inspiró la sinfonía. Antes de que esta introducción concluya, oímos por dos veces el 'Amén de Dresde' en el registro agudo y dibujado con líneas espaciadas que evocan la concordia, en el seno de la divinidad, entre protestantes y católicos. De hecho, este patrón musical fue usado en sus obras por compositores de distintas creencias religiosas como Wagner, Bruckner o Mahler. El apelativo "con fuoco" del Allegro nos muestra a un Mendelssohn apasionado que, en modo menor y con ferocidad, plantea la lucha entre la paz y el conflicto. Aquí los pasajes de ira son suavizados por algunos momentos de ecuanimidad, hasta que reaparece el 'Amén de Dresde' para apaciguar el ambiente antes del final rotundo. El Allegro vivace nos conduce al Mendelssohn genuino, del que brotan con facilidad ideas a medio camino entre la danza y lo cantable, con un aire festivo cimentado en motivos breves y ligeros y salpicados por los timbres orquestales. Es este un feliz scherzo que tiene la frescura de partituras como la Sinfonía Italiana o El sueño de una noche de verano. El brevísimo Andante nos regala después una conmovedora melodía de largo aliento, al estilo de sus Romanzas sin palabras, que sirve de preparación al Coral final, "Ein feste Burg ist unser Gott" ("Poderosa fortaleza es nuestro Dios"), himno de Martin Lutero que ya había sido usado por Bach en su Cantata BWV 80. Presentado en la voz de las maderas, el contrapunto desarrollado a partir del coral evidencia el perfecto manejo y la devoción de Mendelssohn por las técnicas de composición del pasado. Una pomposa conclusión remata ceremoniosamente esta obra profana concebida a mayor gloria de una reforma religiosa.

En este programa comprobamos que la música puede ser también fronteriza. Entre lo lírico y lo vehemente; entre lo ordenado y lo efusivo; entre lo clásico y lo romántico. Disfruten del mestizaje.

Mercedes Albaina

**Jone Martínez, sopranoa / soprano**

Jone Martínez euskal soprano gaztea egungo interpretatzaile indartsu eta moldakorrenetakoia da. Bilboko Juan Crisóstomo de Arriaga Kontserbatorioan hasi zuen bere ahots-heziketa Olatz Saituarekin. Musika Hizkuntzaren Pedagogian eta Musika Hezkuntzan lizentziatua da, eta Kantu Interpretazioan graduatua Maite Arruabarrena eta Maciej Pikulskirekin Musikenen (Euskal Herriko Goi Mailako Musika Kontserbatorioan). Bertan, Kutzaren Ikasketa Amaierako Saria jaso zuen, Musikeneko interpretazio klasikoko expediente onenari dagokiona. Era berean, Carlos Menarekin jarraitu du ahots eta musika heziketan.

Honako hauekin kolaboratu ohi du: La Cetra Barokorchestre Basel, Gli Angeli Geneve, European Union Baroque Orchestra, Forma Antiqua, Orquesta Barroca de Sevilla, Capilla Santamaría, Los Elementos Ensemble, Orquesta Barroca de Salamanca, Concerto 1700, La Ritirata, La Spagna, El Afecto Ilustrado, Conductus Ensemble eta beste talde barroko garrantzitsu batzuekin.

La joven soprano vasca Jone Martínez es una de las intérpretes más pujantes y versátiles del momento. Comenzó su formación vocal con Olatz Saitua en el Conservatorio Juan Crisóstomo de Arriaga de Bilbao. Es licenciada en Pedagogía del Lenguaje Musical y Educación Musical y graduada en Interpretación Canto con Maite Arruabarrena y Maciej Pikulski en Musikene, Conservatorio Superior de Música del País Vasco, donde recibió el "Premio Fin de Estudios Kutxa" al mejor expediente en interpretación clásica de Musikene. Así mismo, ha continuado su formación vocal y musical con Carlos Mena.

Colabora habitualmente con La Cetra Barokorchestre Basel, Gli Angeli Geneve, European Union Baroque Orchestra, Forma Antiqua, Orquesta Barroca de Sevilla, Capilla Santamaría, Los Elementos Ensemble, Orquesta Barroca de Salamanca, Concerto 1700, La Ritirata, La Spagna, El Afecto Ilustrado, Conductus Ensemble y otros importantes conjuntos barrocos.



## Jone Martínez, sopranoa / soprano

Bere izena, besteak beste, honako hauen egitarauetan ere agertzen da: Orquesta y Coro de la Sinfónica de Galicia, Orquesta y Coro RTVE, Real Filharmonia de Galicia, Euskadiko Orkestra, Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Robert-Schumann-Philharmonie, Orquesta Ciudad de Granada, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, eta Franz Schubert Filharmonia.

2022/23 denboraldian, nabarmentzeoak izan ziren bere interpretazio hauek: Orffen Carmina Burana Euskadiko Orkestrarekin eta Beethovenen Bederatzigaren Sinfonia Orquesta y Coro RTVErek, biak Pablo González maisuaren zuzendaritzapean; Bachen La Pasión según San Juan, hori ere Carlos Menak zuzendutako OCRTVErek; Alfredo Bernardinik zuzendutako Coccieren Ifigenia operaren garai modernoetako estreinaldia; Glucken Orfeo eta Euridice Galiziako Orkestra Sinfonikoarekin, Carlos Menaren zuzendaritzapean; Pergolesiren Stabat Mater, La Cetra Barockorchesterrekin batera, Andrea Marcon maisuarekin; European Union Baroque Orchestratekin batera Polonian barrena egindako bira, Enrico Onofriekin batera, Vivaldiren lanekin; edo Guillermo García Calvok zuzendutako Robert Schumann Philharmonierekin Chemnitzen (Alemania) egin zuen debutua, Palomoren "Sinfonía a Granada" interpretatuaz.

Egin berri dituen emanaldien artean, nabarmentzeoak dira honako hauek: Estatu Batuetan National Symphony Orchestratekin batera eta Japonian Bach Collegium Japanekin batera egindako debuta, biak Masaaki Suzukik zuzenduta; Händelen Alcina Teatro de la Maestranza, Héctor Parraren Orgía Bartzelonako Lizeoko Antzoki Handian eta Francesca Cacciniren La liberazione di Ruggiero dall'isola di Alcina Teatros del Canalen eta Teatro Realen; Dido, Königin von Carthago laneko Menalippe, Innsbruck Festival of Early Music-en; eta kontzertuak, besteak beste, Euskadiko Orkestrarekin, Orquesta de Barcelona y Nacional de Cataluñaarekin eta Galiziako Orkestra Sinfonikoarekin batera.

Hurrengo konpromisoetan, Jone La Cetra Barockorchesterrekin arituko da Amsterdamen (Concertgebouw), Basilean, Madrilen eta Santanderren; The Philadelphia Orchestratekin debuta egingo du; Poulencen Glorian arituko da, Orquesta y Coro de Radio Televisión Españolaarekin; eta kontzertuak emango ditu Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin, La Ritiratarekin eta Valentziako Orkestrarekin, besteak beste.

También aparece su nombre en las programaciones de la Orquesta y Coro de la Sinfónica de Galicia, Orquesta y Coro RTVE, Real Filharmonia de Galicia, Euskadiko Orkestra, Orquesta Sinfónica de Bilbao, Robert-Schumann-Philharmonie, Orquesta Ciudad de Granada, Orquesta Sinfónica de Navarra, Franz Schubert Filharmonia, entre otras.

En la temporada 2022/23 sobresalieron sus interpretaciones de Carmina Burana de Orff junto a la Euskadiko Orkestra y la Novena Sinfonía de Beethoven con la Orquesta y Coro RTVE, ambas bajo la dirección del maestro Pablo González; La Pasión según San Juan de Bach, también con la OCRTVE dirigida por Carlos Mena; el estreno en tiempos modernos de la ópera Ifigenia de Coccia dirigida por Alfredo Bernardini; Orfeo e Euridice de Gluck con la Orquesta Sinfónica de Galicia, bajo la dirección de Carlos Mena, el Stabat Mater de Pergolesi junto a La Cetra Barockorchester con el maestro Andrea Marcon; su gira por Polonia junto a la European Union Baroque Orchestra junto a Enrico Onofri con obras de Vivaldi, o su debut con la Robert Schumann Philharmonie en Chemnitz (Alemania) interpretando la "Sinfonía a Granada" de Palomo, dirigida por Guillermo García Calvo.

Entre sus actuaciones recientes destacan su debut en Estados Unidos junto a la National Symphony Orchestra y en Japón junto al Bach Collegium Japan, ambos dirigidos por Masaaki Suzuki; Alcina de Händel en el Teatro de la Maestranza, Orgía de Héctor Parra en el Gran Teatro del Liceo de Barcelona y La liberazione di Ruggiero dall'isola di Alcina de Francesca Caccini en los Teatros del Canal y Teatro Real; Menalippe de Dido, Königin von Carthago en el Innsbruck Festival of Early Music; y conciertos junto a la Orquesta de Euskadi, Orquesta de Barcelona y Nacional de Cataluña, Orquesta Sinfónica de Galicia, entre otras.

Próximos compromisos llevarán a Jone a actuar con La Cetra Barockorchester en Amsterdam Concertgebouw, Basilea, Madrid y Santander; su debut con The Philadelphia Orchestra; Gloria de Poulenc con la Orquesta y Coro de Radio Televisión Española, y conciertos con Bilbao Orkestra Sinfonikoa, La Ritirata y la Orquesta de Valencia, entre otras.

**Masaaki Suzuki, zuzendaria / director**

© Marco Borggreve

Koben jaio zen; eta Tokioko Arte Ederren eta Musikaren Unibertsitatean graduatu zen, organoko konposizio eta interpretazio titulu batekin. Amsterdamgo Sweelinck Kontserbatorioan ikasi zuen Ton Koopman eta Piet Keerekin. Tokioko Arteen Unibertsitateko antzinako musika saileko sortzaile eta irakasle emeritua. Suzukik orkestra-zuzendari gisa duen ibilbidea organista eta klabezinista lanarekin uztartzen du; duela gutxi Bachen instrumentu hauetarako lanak grabatu ditu.

2001eko apirilean, Alemaniako "Das Verdienstkreuz am Bande des Verdienstordens der Bundesrepublik" delakoarekin kondecoratu zuten. Yaleko Musika Eskolako eta Yaleko Musika Sakratuaren Institutuko zuzendaritzako koraleko irakasleen kidegoko kide izan zen 2009tik 2013ra arte, eta bertako kide izaten jarraitzen du Yale Schola Cantorumeko zuzendari gonbidatu nagusi gisa. 2012an Leipzigoko Bach Domina jaso zuen, eta 2013an Musikako Errege Akademiaren Bach Saria.

Masaaki Suzuki 1990ean Bach Collegium Japan sortu zuenetik, autoritate gisa finkatu da J. S. Bachen lanetan. Bach Collegium Japaneko zuzendaria izan da ordutik, eta Europako eta Estatu Batuetako agertoki eta jaialdi nagusietara eraman ditu mai. Bachen kantata sakratuen ziklo osoa grabatuz eta ospe bikaina lortuz bere fintasun adierazkorragatik eta bere interpretazioen benetakotasunagatik.

Suzukik Record BISekin egindako diskografia ikusgarriak, Bachen lan koral garrantzitsuenak eta klabezinerako obra osoak biltzen dituenak, kritikaren laudorio ugari ekarri dizkio. The Timesek honako hau idatzi

Nació en Kobe y se graduó en la Universidad de Bellas Artes y Música de Tokio con un título en composición e interpretación de órgano. Estudió en el Conservatorio Sweelinck de Ámsterdam con Ton Koopman y Piet Kee. Fundador y profesor emérito del departamento de música antigua de la Universidad de las Artes de Tokio. Suzuki combina su carrera como director de orquesta con su trabajo como organista y clavecinista; recientemente ha grabado obras para estos instrumentos de Bach.

En abril de 2001, fue condecorado con "Das Verdienstkreuz am Bande des Verdienstordens der Bundesrepublik" de Alemania. Fue miembro del cuerpo docente de dirección coral de la Escuela de Música de Yale y del Instituto de Música Sacra de Yale desde 2009 hasta 2013, donde continúa afiliado como director invitado principal de la Yale Schola Cantorum. En 2012 fue galardonado con la Medalla Bach de Leipzig y en 2013 con el Premio Bach de la Real Academia de Música.

Desde que Masaaki Suzuki fundó el Bach Collegium Japan en 1990, se ha consolidado como una autoridad en las obras de J. S. Bach. Ha sido director de Bach Collegium Japan desde entonces, llevandolos con regularidad a los principales escenarios y festivales de Europa y Estados Unidos. Grabando el ciclo completo de las Cantatas Sagradas de Bach y forjándose una excelente reputación por su expresivo refinamiento y la autenticidad de sus interpretaciones.

La impresionante discografía de Suzuki con Record BIS, que incluye las obras corales más importantes de Bach, así como obras completas para clave, le ha valido numerosos elogios de la crítica. The Times



zuen: «burdinazko barra bat beharko litzateke bere freskotasun, garbitasun eta soiltasun espiritualaren aurrean hunkituta ez sentitzeko». 2018an, arrakasta handiz amaitu zuen Bach Collegium Japanekin 1995ean hasitako kantata sakratu eta profanoen grabazio epikoa, hirurogeita bost liburuki hartzetan dituena. Duela gutxi, taldeak Bachen La Pasión según San Juan eta la Pasión según San Mateo grabatu ditu, Grammophonek sarituak.

Garaiko talde entzutetsuekin (hala nola Collegium Vocale Gent, Orchestra of the Age of Enlightenment eta Philharmonia Baroque Orchestrarekin) lan egiteaz gain, Suzuki errepetitorio anitzak zuzentzera gonbidatu dute (esaterako, Brahms, Britten, Fauré, Mahler, Mendelssohn, Dvořák eta Stravinsky); honako orkestra hauekin, besteak beste: New Yorkeko Filarmonikoa, San Frantziskoko Orkestra Sinfonikoa, Los Angelesko Filarmonikoa, Montrealgo Orkestra Sinfonikoa, hr-Sinfonieorchester, Philharmonia Orchestra, Deutsches Symphonie-Orchester Berlin, Mozarteum Orchester Salzburg, Gewandhausorchester Leipzig, Radio de Baviera, Radio Nacional de Dinamarca, Gotemburgoko Sinfonikoa, Orchestre Philharmonique de Radio France eta Yomiuri Nippon Symphony Orchestra.

Joan den denboraldian, Bach Collegium Japanekin BBC Proms jaialdira gonbidatu zuten. Eta 2023ko ekainean, Bachfest Leipzigeko kantata-zikloan parte hartu zuen hiru taldeetako bat izan zen (bertan, Mendelssohnen Elíasen interpretazio bat ere egin zuten, eta oso txalotua izan zen). Beren agenda estuak Estatu Batuetara ere eraman zituen; eta, bertan, New Yorkeko Alice Tully Hall eta San Frantziskoko Davies Symphony Hall bezalako lekuetan aritu ziren. Halaber, Europan zehar hainbat bira egin zituzten. Baita Orchestra of the Age of Enlightenment eta Philharmonia Orchestrarekin ere.

2024/25 denboraldian Orchestre de Chambre de Paris eta Kyoto Symphony Orchestra zuzendu ditu berriro; eta, besteak beste, National Symphony Orchestra Washington, Philadelphia Orchestra, New Zealand Symphony Orchestra eta Schola Cantorum Basiliensiskekin egin du debuta. Suzukik Lahti Symphony Orchestra, Bilbao Orkestra Sinfonikoa eta Orquestra Sinfônica do Estado de São Paulo ere zuzendu ditu berriro.

escribe: «habrá falta una barra de hierro para no sentirse conmovido ante su frescura, nitidez y sobriedad espiritual». En 2018 concluyó de forma triunfal con el Bach Collegium Japan la grabación épica de las cantatas sacras y profanas iniciadas en 1995, que comprende sesenta y cinco volúmenes. Recientemente el conjunto ha grabado la Pasión según San Juan y la Pasión según San Mateo de Bach, galardonadas por Grammophone.

Además de trabajar con renombrados conjuntos de época como Collegium Vocale Gent, Orchestra of the Age of Enlightenment y Philharmonia Baroque Orchestra, Suzuki ha sido invitado a dirigir repertorios tan diversos como Brahms, Britten, Fauré, Mahler, Mendelssohn, Dvořák y Stravinsky, con orquestas como la Filarmónica de Nueva York, la Orquesta Sinfónica de San Francisco, la Filarmónica de Los Ángeles, la Orquesta Sinfónica de Montreal, la hr-Sinfonieorchester, Philharmonia Orchestra, Deutsches Symphonie-Orchester Berlin, Mozarteum Orchester Salzburg, Gewandhausorchester Leipzig, Radio de Baviera, Radio Nacional de Dinamarca, Sinfónica de Gotemburgo, Orchestre Philharmonique de Radio France y Yomiuri Nippon Symphony Orchestra.

La temporada pasada fue invitado con el Bach Collegium Japan al festival BBC Proms, y en junio de 2023 participó como uno de los tres conjuntos en el ciclo de cantatas del Bachfest Leipzig, donde también realizaron una interpretación de Elías de Mendelssohn muy aclamada; su apretada agenda también los llevó a Estados Unidos, donde actuaron en lugares como el Alice Tully Hall de Nueva York y el Davies Symphony Hall de San Francisco, y realizaron varias giras por Europa. Así como con la Orchestra of the Age of Enlightenment y la Philharmonia Orchestra.

En esta temporada 2024/25 ha dirigido de nuevo a la Orchestre de Chambre de Paris y a la Kyoto Symphony Orchestra, y ha debutado con la National Symphony Orchestra Washington, la Philadelphia Orchestra, la New Zealand Symphony Orchestra y la Schola Cantorum Basiliensis, entre otras. Suzuki también ha vuelto a dirigir a la Lahti Symphony Orchestra, la Orquesta Sinfónica de Bilbao y la Orquesta Sinfónica do Estado de São Paulo.



Wolfgang Amadeus Mozart: *Fra cento affanni e cento K. 88*

Fra cento affanni e cento  
palpito, tremo e sento  
che freddo dalle vene  
fugge il mio sangue al cor.  
Prevedo del mio bene  
il barbaro martiro  
e la virtù sospiro  
che perse il genitor.

Ehunka larritasun eta taupada artean  
nago dardarka. Eta sentitzen dut  
nire zainetan odola hotz  
bihotzerantz.  
Sumatzen ditutene on maitearen  
sufrikario kru dela  
eta hasperen estuak  
aita galdu izanaren ondorio.

Entre cien angustias y cien latidos,  
tiembla y siento que fría,  
en mis venas,  
fluye la sangre hacia el corazón.  
Preveo el cruel martirio  
de mi bien amada  
y los angustiosos suspiros  
por la pérdida de su padre.

Wolfgang Amadeus Mozart: *Vorrei Spiegarvi, oh Dio K. 418*

Vorrei spiegarvi, oh Dio!  
qual è l'affanno mio;  
ma mi condanna il fato  
a piangere e tacer.  
Arder non puó il mio core  
per chi vorrebbe amore  
e fa che cruda io sembri,  
un barbaro dover.  
Ah conte, partite, correte,  
fuggite lontano da me;  
La vostra diletta Emilia v'aspetta;  
languir non la fate, é degna d'amor.  
Ah stelle spietate!  
nemiche mi siete.  
Mi perdo s'ei resta, oh Dio!  
Ah conte, partite  
partite, correte, d'amor non parlate,  
é vostro il suo cor.

Azaldu nahi nizuke, ene Jainkoal!  
zer dudan kezka  
baina patuak ordea nahi du  
egin dezadan mutu negar.  
Ene bihotzak ezin du  
maite duen hori maitatu,  
eta hala ematen dut kru dela,  
bai betebehar zekena!  
Hara, Kondea, segi, korrika  
egin ihes nigandik;  
zain daukazu Emilia kuttuna,  
ez dezala itxaron, amodioa merezi baitu.  
Ene, izar kru delak!  
Zuek zaituztet etsai.  
Galduta nago bera geratzen bada, ene  
Jainkoal!  
Hara, Kondea, segi,  
segi, korrika, ez aipatu maitasunik,  
zurea da haren bihotza.

Querría explicaros, joh Dios!  
cuál es mi angustia;  
mas me condena el destino  
a sollozar y callar.  
Mi corazón no puede arder  
por quien querría amar  
y me hace parecer cruel,  
joh bárbaro deber!  
Ah, Conde, partid, corred,  
huid lejos de mí;  
vuestra dilecta Emilia os aguarda;  
no la hagáis languidecer, es digna de amor.  
¡Ah, despiadadas estrellas!,  
sois mis enemigas.  
Estoy perdida si él se queda, joh Dios!  
Ah Conde, partid,  
partid, corred, no habléis de amor,  
es vuestro su corazón.



Bilbao Orkestra  
Sinfonikoa

DENBORALDIA ————— 24 ————— TEMPORADA  
25

apirilak 03-04 abril

Hurrengo kontzertua  
Próximo concierto

© Sasha Gusov

# Penderecki y la Cuarta de Brahms

W. Kilar: *Orawa*

K. Penderecki: *Concerto grosso para tres violonchelos y orquesta*

J. Brahms: *Sinfonía nº 4 en mi menor Op. 98*

Michał Dmochowski, biolontxeloa/violonchelo

Orfilia Saiz, biolontxeloa/violonchelo

Adam Klocek, biolontxeloa/violonchelo

Eduardo Strausser, zuzendaria/director



Palacio Euskalduna Jauregia



osteguna | jueves 19:30 h  
ostirala | viernes 19:30 h



Desde 14,42 €-tik aurrera  
Gaztea (<30):  
desde 5,41 €-tik aurrera

Taquilla Euskaldunako leihatila  
[www.bilbaorquestra.eus](http://www.bilbaorquestra.eus)

